

<p>beste eremuekin dituzten harremanak ulertzea, integratzea eta arte-ekoizpen konplexuak pentsatzeko eta garatzeko erabiltzea.</p>								
<p>- Norberaren eta ingurunean nagusi diren adierazpen estetikoetatik desberdinak errespetatzea eta aintzat hartzea, prozesu erreflexibo eta kritikoen bitartez, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko, erantzunak ematekoan erregistroak ugaritzeko eta malgutasun-, elkartasun-, intereseta tolerantzia-jarrerak garatzeko.</p>								
<p>- Banaka edo taldean arte-proiektu baten plangintza egitea eta proiektua egiteko prozesuari buruz gogoeta egitea, lortu nahi denaren intentzioak, faseen azterketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz jabetzeko. Lan partekatua arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziak errespetatuz bere gain hartzea.</p>								